

OARSOARRAK EUSKARAREN SARIETARAKO GARAIKURRA LEHIAKETA PUBLIKO BIDEZ EGITEKO OINARRIAK

Oarsoarrak Euskararen Saria Oarsoaldeko Euskara Batzordeak sortu zuen 2010ean, jendarteko zeinahi alorretan, euskararen normalizazioan urrats esanguratsuak egin dituzten norbanako, elkarte, lantoki, erakunde nahiz taldeak saritzeko, aitortza egiteko eta haien lana bistaratzeko.

XEDEA

Lehiaketa honen helburua Oarsoarrak Euskararen Sarien garaikurra arte diziplina baten bidez sortzea eta hautatzea da.

ERABILPENA

Lehiaketa honen bidez aukeratuko den proposamen artistikoaren eta lanaren erreplikak Oarsoarrak Euskararen Sarietarako garaikur gisa erabiliko dira 2025eko ekitalditik aurrera. Urtez urte, behar diren adina erreplika egingo dira, hasiera batean, sei urtez. Hortik aurrera, jarraitzeko aukera artistarekin adostuko da.

LEHIAKETAN PARTE HARTZEA

Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute horretan aritzeko gaitasuna duten eta lehiaketako oinarriak onartzen dituzten Oarsoaldeko (Errenteria, Lezo, Oiartzun, Pasaia) herritar guztiek.

Lanak jasotzeko epea zabaldu eta bi hilabetera, aurkeztu diren lanen kopuruan hamarrek langa gainditu ez bada, lehiaketaren geografia eremuaren baldintza indargabetuko da, Euskal Herri osora erabat zabalik geratuz. Horretarako, parte-hartzea aurreikusten duten Oarsoaldeko hautagaiei urtarrilaren 29a aurretik euskara@oarsoaldea.eus e-postara, aurkezteko interesa adierazten duen mezu bat igortzea eskatzen zaie.

AURKEZTU BEHARREKO LANEN EZAUGARRIAK

Ondoko hauek dira lehiaketara aurkeztuko diren proposamenen ezaugarriak:

- Lehiaketara aurkeztuko diren lanak arte plastikoetako edozein diziplinatakoak izan daitezke.
- Garaikurra sortzeko proiektua edo ideia izango da aurkeztuko dena. Lehiaketara bozeto gisa aurkeztuko dira lanak, eta lehiaketa irabazten duenak, 2025eko apirilaren 11tik urriaren 6ra arteko epea izango du lana burutzeko.
- Lanak originalak izango dira, lehiaketarako berariaz sortutakoak.
- Saritutako lana, aurreratu bezala, Oarsoarrak Euskararen Sariaren garaikurra izango da sei urtetan. Horregatik, aurreikusten da urtean banakako saridunarentzako erreplika bakarra edo bi egingo direla, eta eragile kantitatearen arabera izango dela taldekakoa (7 gehienez).
- Garaikurrak gizabanako batentzat eskuekin eramangarri eta erabilgarri izateko moduko neurriak izan beharko ditu
 - Hiru dimentsioko lanak edo eskulturak izatekotan: 30x30x30cm gehienez.
 - Irudigintzari lotutakoak izatekotan: 60x80 cm gehienez, markoztatuta.
- Lan horiek euskara eta eskualdea iradoki beharko dituzte nolabait, eta lanak inskripzio idatziren bat badu, euskaraz idatzita egongo da.

LANAK AURKEZTEKO MODUA

Artelaren proposamen-txostenak ondorengo atalak jasoko ditu (4 orrialde, gehienez):

- Artelaren izenburua.
- Piezaren deskribapena, teknika eta bozetoa.
- Euskara eta eskualdearekin duen harremana.
- Aurreikusten den erreproduzio moduaren azalpena.

Lanak egileen anonimotua gordeko dute. Beraz, ez da inon ipiniko egilearen identitatea ezagutzera eman dezakeen izenik, bistan bederenik. Parte-hartzaileek ez dituzte beren lanak norberaren izenarekin identifikatuko, ezta epaimahaiko partaideekin lehiaketari buruzko harremanik izango ere. Horretarako, lehiakide bakoitzak bere lana identifikatzeko goiburu bat aukeratuko du.

Lanak postaz bidali edo baimenduriko pertsonak eskura ere entregatu ahal izango ditu honako helbide honetara:

Oarsoaldea Garapen Agentzia.

Astigarragako bidea, 2-2. solairua (Mamut eraikina)

20180 Oiartzun (Gipuzkoa)

Lanarekin batera bi gutun-azal entregatu beharko dira; bataren azalean A letra jarri beharko du eta egileak aukeraturiko goiburua. Gutun-azal horren barnean, lanaren goiburua edo izena eta egilearen identifikazio datuak adierazi beharko dira:

Izen-abizenak

Helbidea

Telefono zenbakia

E-posta helbidea

Bestearen azalean B letra jarri beharko da eta egileak aukeraturiko goiburua. Gutun-azal horren barnean lanari dagokion proiektua sartu beharko da (4 orrialde gehienez).

LANAK JASOTZEA ETA LEHIAKETARAKO ONARTZEA

Proposamenak bidaltzeko epea 2025eko martxoaren 14ko 14:00etan amaituko da. Behin epea amaitutakoan, lehiaketako idazkariak jasotakoei buruzko akta egingo du eta lan bakoitzari zenbaki bat ipiniko zaio.

2025eko martxoaren 21ean proposamenak irekiko dira. Ondoren, eskaturiko baldintzak betetzen dituzten egiaztatuko da.

Lehiaketan, argitaratu gabeak eta jatorrizko proposamenek bakarrik parte hartu ahal izango dute. Beraz, ez dira onartuko merkatura edo alde zuzenetik lehiaketetan parte hartutako lanak.

EPAIMAHAIA

Epaimahaia zehazten den datan (martxoaren 21ean) osatu beharko da, behin lanak onartzeko epea amaituta.

Epaimahaia lau bokalek gehi epaimahai-buruak eta idazkariak osatuko dute. Epaimahai-burua Oarsoarrak Euskararen Sariaren epaimahaiko kide bat izango da; eskualdeko euskalgintzaren ordezkari gisa.

Bokalak herri bakoitzeko arte munduarekin loturiko aditu bana izango dira. Idazkari-lanak Oarsoaldeko Euskara Zerbitzuko teknikariak egingo ditu, hots, prozesu osoaren akta jasoko du eta egin beharreko jakinarazpenak egingo ditu. Ez du botorik izango.

Epaimahaiak erabakia hartu ahal izateko quoruma egon beharko du. Horretarako 3 kide edo gehiago egongo dira, idazkariak gain. Onartuko da botorik ez ematea.

Epaimahaiak kideen botoen gehiengoarekin aukeratuko du aurkeztutako proposamen onena, hain zuzen ere lehiaketaren xedea betetzen duena. Ebaluazioan kontuan hartuko dira:

- Lanaren berezitasuna eta izaera berritzailea.
- Erreproduktzio-moduaren egokitasuna.
- Aurreikusten den azken emaitzaren egokitasuna.
- Euskararekin eta eskualdearekin duen harremana.

Bozketan berdinketa izanez gero, presidentek kalitatezko botoa izango du. Epaimahaiak emango du ezagutzera bere erabakia, eta apelaezina izango da

HAUTAKETA

Lehiaketarako onarturiko proposamenen ebaluazioa egin ondotik, epaimahaiak irabazlea erabakiko du, betiere horretarako ezarritako baldintzak aztertu eta oinarri hauetako xedapenen arabera jardunez.

Epaimahaiak aurkezturiko lan bakar batek ere ez duela nahikoa kalitaterik baderitzo, edo beste edozein arrazoi garrantzitsugatik saririk ez ematea erabaki dezake.

Epaimahaiaren erabakia ezin izango da errekurritu, eta 2025eko apirilaren 11tik aurrera emango da jakitera.

SARIAK

Lehiaketan hautatzen den lanaren egileak 2.500€ko saria jasoko du lehenengo garaikur originala ekoizteko. Sari horrek barne hartuko ditu obra egiteko gastu guztiak, eskusibitatea eta ordainsaria.

Sariaren erreplika bakoitza egiteko 200€ko kopurua aurreikusiko da urtero. Edizio bakoitzean, gehienez, 8 erreplika egingo lirateke (Banakakoarentzako bat eta, taldekakoaren kasuan, herri gune bakoitzeko (Errenteria, Lezo, Oiartzun, Pasai Donibane, Pasai Antxo, Pasai San Pedro eta Trintxerpe) bat, badaezpada.

Erreplika horiek, artistak berak egingo lituzke, hala nahiko balu, gehienez, sei urtez.

LANEN JABETZA

Lehiaketa irabazten duen lanaren jabetza eta eskusibitatea Oarsoaldeko Euskara Batzordearenak izango dira. Lehiaketara aurkeztu eta hautatuak ez diren gainerako lanak egileak berreskuratu ahal izango ditu epaimahaiaren erabakia argitaratu eta hilabeteko epean (Horretarako behar bezala egiaztatu beharko du egilea bera dela, agiri ofizialen bidez).

OHARRAK

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko hutsegiteak edo interpretazioa Epaimahaiaren esku egongo da, eta erabaki horri ezin izango zaio administrazioarekiko helegiterik jarri.

Oarsoarrak sariei buruzko informazio gehiago nahi izatera, www.oarsoarrak.eus web guneko Oarsoarrak saria atalera jo dezake nahi duenak.